

Euskalingua 22

Aurkezpena

Irakurle on hori,

Euskalingua 22k sei artikulu dakarz. Lehenengo artikuluan Ariane Ensunzak, Gandara eta De la Quadraren dokumentuak aztertuz, Gernika eta Bermeoko XVIII. mendeko hizkeraren erkaketa egiten dau. Bigarrenean Jacinto Iturbek Izurategiren eskutitzak aurkezten ditu, euron kopia eskaneatuagaz batera. Hirugarrenean Udane Goikoetxeak, *Euskalingua* 21ean hasitakoa bidetik, Gotzon Garate euskatzalearen lana aztertzen jarraitzen dau. Laugarrenean Juan Rekaldek Arratialdean jasotako etnotestua eskaintzen dau. Bosgarrenean Aholabeko I. Odriozola, I. Hernáez, E. Navas eta J. Sánchezek bigarren hizkuntza ikasteko dauden sistemak hobetuko lituzkeen beste sistema baten garapena aurkezten dabe. Seigarrenean Aholabeko kide den Ibon Saratxagak bere doktorego-tesian landutako gaiak eta emaitzak aurkezten ditu.

Ariane Ensunzak *Gandara eta De la Quadra: Gernikako eta Bermeoko euskara XVIII. mendean* izeneko artikuluan, autore bi hauen testuetako antzekotasunetan eta desberdintasunetan oinarrituta, Busturialdeko herri biotako XVIII. mendeko euskara deskribatzen dau, fonologia eta morfologiako datuetan oinarrituta.

Jacinto Iturbek *Jon Izurategiren Idazki ereduak* artikuluan, Bizkaiko autore honek 1923an argitaratutako 46 eskutitz dakarzkuz; gipuzkeraz idatzita dagoena salbu, beste 45ak bizkaieraz idatzita daude. Iturbek eskutitzon edukiari buruzko iruzkinak egiten ditu, halan gertakizun historikoak, sozialak, pertsonaia ezagunak, etab. gogoratu eragiten deuskuz, eta honegaz batera, formari buruzko iruzkinak egiten ditu, garaiko hizkuntza ereduak, hitz herrikoiak, neologismoak, etab. aiapatuz. Ekarpen honek Izurategi ezagutzeko aukeragaz batera, 1923ko edizio eskaneatua irakurtekoa eskaintzen dau

Udane Goikoetxeak *Gotzon Garate. Tradiziotik modernitatera II* deritzon artikuluan Garate jesuitaren pentsakeran eta lanean sakontzeko asmoz, tradizioa eta modernitatea kontzeptuak lantzen dihardu. Garate intelektual modernotzat jotzen dau, alegia, tradizioaren ezagutza sakona lortu eta bere garaian, bere orainean lan egin eban intelektual modernoak, euskal kulturaren eta nazio kulturaren eraikuntzan parte hartu ebana.

Juan Rekaldek *Sorginen gaineko etnotestua Lezaman jasoa* izenburuagaz dakar artikulua. Sorginen ganeko istorioa jaso dau 1994an magnetofioan egindako grabazioan, kristautasuna eta sorginen ganeko sinistea aurrez aurre bizi ziren garaiko kontakizuna. Lehenengo grabatutakoaren transkripzioa edo etnotestua, ondoren bertsio etimologikoa, honen ondoren bizkaiera jasokoa eta, azkenik, euskara batukoa eskaintzen ditu. Grabazioaren kalitatea optimoa ez bada ere, interesgarritzat dogu audioa eskaintzea; jakin egizu, irakurle, gehiena nahiko ondo ulertzen bada ere, hobeto ulertzen dela etnotestua irakurri ahala audioa entzuten jardunez gero, hau da, ikusmena eta entzumena batera erabilita.

Aholababeko Igor Odriozola, Inma Hernáez, Eva Navas eta Jon Sánchezek *Mezuak egiaztatzeko tresna baten diseinua, bigarren hizkuntzak ikasteko sistemetan inplementatzeko* deritzon artikuluan gaurko hizkuntzak ikasteko sistemetan aplikazio zuzena duen baliabidea ikasteko dute, erabiltzailearen ahozko ekoizpena denbora errealean egiaztatu eta pantailan agerazten duena.

Aholabeko Ibon Saratxagak *Fasea ahots-seinalearen eredu harmonikoetan: adierazpidea, prozesaketa eta aplikazioak* izenburuko doktorego-tesiko datuak eta ahots-seinalearen ikerketari dagozkion emaitza aipagarrienak adierazten ditu artikuluan honetan.

Euskalingua 22ko artikuluan gaien aniztasuna interes diferenteetako irakurleentzat atsegin izango delakoan, agurtzen zaitut.

Aulesti, 2013ko apirilak 23

Maribi Unamuno

Editorea

victoria.unamuno@ehu.es